

Gure funtzionamendua:

Euskal Etxeko euskara-irakaskuntzak HABEren curriculumak ezarritako ildoak jarraitzen ditu. Erakunde hori helduen (16 urtetik gorako) euskalduntzeaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Autonomiadun Erakundea da. Nahiz eta, 18-19 ikasturtetik aurrera, mundu osoko euskal etxeetako euskara eskolen kudeaketa Etxepare Institutuak bere gain hartu HABEren eskutik, Etxeparek hala eskatuta, ez dugu gure curriculumak aldatu.

Bartzelonako Euskal Etxean, euskalduntze prozesua ondoko koadroan agertzen diren mailetan banatuta dugu. ikasleek mailetan gora egin ahala, matrikulen kopurua jaitsi egiten da, eta talde homogeenak sortzeko arazoak izaten ditugu. Horregatik, taldea sortu ahal izateko, B1 mailatik gorako taldeak ez dira homogeenak izango; bestela esanda, talde berean azpi-maila desberdinetako ikasleak elkartuko ditugu. HABEren curriculumak aukera ematen du horretarako: ikaslearen gaitasuna baloratzen/ebaluatzen denez, talde berean gramatika-egitura gehiago edota gutxiago ezagutzen dituzten ikasleak elkar daitezke.

Laburbilduz, B1 mailatik aurrera zikloka funtzionatuko dugu: talde heterogeneo horretan matrikulatuta dagoen ikasleak maila hori bitan edo hirutan egin beharko du. Hori dela eta, ikasleek materiala errepika ez dezaten, hiru urteko zikloak egin ditugu (adibidez: 2017-2018 ikasturtean A materiala erabiliko dugu, 2018-2019 ikasturtean B materiala, 2019-2020 ikasturtean C materiala, 2020-2021 ikasturtean A materialarekin hasiko gara berriro...). Jakina, talde homogeenak sortzeko nahikoa jende egonez gero, horixe egingo genuke.

MAILA	
C1.3	C1
C1.2	
C1.1	
B2.3	B2
B2.2	
B2.1	
B1.3	B1
B1.2	
B1.1	
A2.2	
A2.1	
A1	



Maila-egiaztagiriak eta titulu ofizialak:

Ikasleak behar badu, Euskal Etxeak ikasturte amaieran maila-egiaztagiria egin diezaiolke. Hala ere, euskara-gaitasun titulu ofiziala nahi badu, HABEren azterketa ofizialera aurkeztu behar du.

Euskal Etxeko ikasleek aukera dute azterketa hori Bartzelonan egiteko (B1, B2 eta C1 mailak). Izena HABEren eman behar izaten da eta tasa bat ordaindu. Bartzelonan, ikasturteko, **aukera bakarra dago** azterketa egiteko: udaberrian. Euskal Etxean matrikulatuta egoteak, **ez du esan nahi** ikaslea zuzenean azterketa ofizialera aurkez daitekeenik; HABEK Euskal Etxeei ikasle hori azterketa gainditzeko gai dela ziurtatzeko exijitzen die.

Hauek dira titulu baliokidetzak:

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa	EAE-CAV			Nafarroa	Hizkuntza Eskola Ofiziala*
	HABE	Hizkuntz Eskakizunak			
		Arruntak	Hezkuntza eta Ertzaintza		
C2	C2	4. HE	3. HE		
C1	C1	3. HE	2. HE	EGA	
B2	B2	2. HE	1. HE		5.a (Aurreratua)
B1	B1	1. HE			3.a (Tartekoa)
A2	A2				2.a (Oinarrikoa)
A1	A1				

* HEOeko titulu baliokidetzak 2007-2008 ikasturteko ikasketa planaren osteko tituluak dagozkie.



Ordutegi eta taldeak:

Gure ikastaro arruntak urritik ekainerakoak izaten dira, astean lau ordutakoak (128 edo 130 eskola ordu gutxi gorabehera). Urtarrilean ikasle berriak onartuko ditugu, **baina lekua daukaten ikastaldeak betetzeko besterik ez**. Hortaz, matrikulatu nahi duten ikasleek mailaketa proba bat egin beharko dute ea zein taldetan sar daitezkeen ikusteko. Proba egiteko, barcelona@euskaletxea.cat helbide elektronikoan hitzordua eskatu beharra dago (urritik datozen ikasleek jada 50 ordu inguru eginda edukiko dituztenez, **ez dugu zerotik hasten diren ikaslerik onartuko**). Edozein talde ikasle berriekin gehienezko ikasle kopurura iristen bada, talde horretan matrikulazioa itxi egingo dugu. Talde hauetan onartzen ditugu ikasle berriak:

Taldea	Egunak	Ordutegia	Lehen eguna
A1 maila	astelehen-asteazken	17:30-19:30	Urtarrilak 31
A1 maila	astearte-ostegun	17:30-19:30	Otsailak 1
A1 maila	astearte-ostegun	19:30-21:30	Otsailak 1
A2.1 maila	astelehen-asteazken	17:30-19:30	Urtarrilak 31
A2.2 maila	astelehen-asteazken	19:30-21:30	Urtarrilak 31
B1 (B1.1+B1.2+B1.3) maila	astearte-ostegun	17:30-19:30	Otsailak 1
C1 (C1.1+C1.2+C1.3) maila	astearte-ostegun	19:30-21:30	Otsailak 1
Autoikaskuntza on line	Galdetu mailak eta mintzasaioen ordutegiak		

COVIDaren berragertze baten ondorioz Euskal Etxea berriro konfinamenduagatik itxi behar bada, aurrez aurreko eskolekin on line jarraituko dugu ikasgeletara itzuli ahal den arte.

Matrikulatzeko epea eta prezioak:

Matrikulazioa: urtarrilaren 12tik 26ra.

Prezioak: Euskal Etxeko bazkideak 195€

Ez bazkideak 280€

Oharra: Matrikulatzean ikaslea bazkide egiten bada, eta ikastaroa amaitu aurretik bazkideztatik baxa ematen badu, matrikularen aldea ordaindu egin beharko du.

Nola matrikulatu:

Euskal Etxean bertan (mailaketa probaren eguna aprobetxa dezakezue):

1. Idazkaritza-ordutegia: 10:00-13:00 eta 15:00-17:30 astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 93 310 22 00
2. Informazio orri osoa ondo irakurri.
3. Matrikula orria bete (daturen bat falta bada, matrikula-aldiko azken eguna baino lehen eman behar da)
4. Matrikula ordaindu eskudirutan edo txartel bidez. Edozein La Caixa bulegotara joanda ere ordain dezakezue, edo transferentziaz: horretarako, segi itzazue "Internetez" aukerako 4. puntuko pausuak.

Internetez:

1. barcelona@euskaletxea.cat e-postara mezu bat idatzi matrikulatu nahi duzula esateko. Informazio orria eta matrikula orria jasoko dituzu e-mail baten bidez.
2. Informazio orri osoa ondo irakurri.
3. Matrikula orria zure ordenagailura jaitsi eta bete (daturen bat falta bada, matrikulazio epearen azken eguna baino lehen eman beharra dago).
4. Matrikula **La Caixa**ko Euskal Etxearen kontu honetan ordaindu: ES56 2100 1089 70 0200039109. Kontzeptuan "euskara + izen-abizenak" jarri, nori ordaindu duen jakin dezagun. Agian diru-sarreraren egiaztagiraren kopia eskatu beharko dizugu; beraz, gorde ezazu ondo.
5. Matrikula orri bete e-postaz bidaliezaguzu, eta e-posta berean ordainketaren data esaguzu; horrela, gure administrariak ea akatsik egon den konprobatuko du.